BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2623

AGINDUA, 2016ko ekainaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duen Agindua aldatzen duena.

Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko azaroaren 10eko Aginduaren 2. artikuluan (aurretiaz izapidetua; EHAA, 218. zk., 2015eko azaroaren 16koa), 26.000.000 euro ezarri ziren laguntza horietarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legearen ondorioz, finantziazio hori, azkenean, hasierako aurreikuspena baino handiagoa izango da.

Hori dela eta, indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzen programarako deialdia egiten duen Aginduaren 2. artikulua aldatzea. Hona hemen aldaketak:

«2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Deialdi honetako diru-laguntza programaren guztizko zenbatekoa, 2016. urteko aurrekontu-ekitaldia eta 2017, 2018, 2019, 2020, 2021 eta 2022rako konpromiso-kredituak kontuan hartuta, 26.750.000 euro da, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura.»

2. artikulua.– Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzen programarako deialdia egiten duen Aginduaren 18.1 artikulua aldatzea. Hona hemen aldaketak:

«18. artikulua.– 1.– Ordainketa.

1.– Agindu honetako 15.1 artikuluan zehaztu onarpen-prozedura betetakoan, laguntzak ordaindu egingo dira, honelaxe:

– Lehen urteko ordainketa, libramendu bitan egingo da: lehena, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 56koa. Bigarrena, gainontzeko % 44koa, hurrengo urtean, behin 17. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu txosten zientifikoak eta ekonomikoak aurkeztu izana egiaztatuta. Bigarren libramendua osorik ordainduko da, betiere, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50a exekutatu dela egiaztatu ostean erakunde onuradunak. Bestela, justifikatutako zenbatekoaren arabera egingo da ordainketa.

– Bigarren urteko ordainketa, libramendu bitan egingo da: lehena, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa. Bigarrena, gainontzeko % 50ekoa, hurrengo urtean, behin 17. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu txosten zientifikoak eta ekonomikoak aurkeztu izana egiaztatuta. Bigarren libramendua osorik ordainduko da, betiere, urte horretarako emandako

zenbatekoaren % 80a exekutatu dela egiaztatu ostean erakunde onuradunak. Bestela, justifikatutako zenbatekoaren arabera egingo da ordainketa.

– Hirugarren urtean lehen libramendu bat egingo da, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa; bigarren libramendua, behin 17. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu txosten ekonomikoak eta zientifikoak aurkeztu izana egiaztatutakoan egingo da, eta lehen hirurteko (2016-2018) likidazioaren emaitzei egokitutakoa izango da.

– Laugarren eta bosgarren urteko ordainketak bigarren urterako adierazi den bezala egingo dira.

– Seigarren urteko ordainketak hirugarren urterako adierazi den bezala egingo dira».

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 14a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.